

LIZARRAKO ANTZINAKO MUSIKAREN ASTEAREN ZUZENDARITZA ARTISTIKORAKO DEIALDIA

1. LIZARRAKO ANTZINAKO MUSIKAREN ASTEA

Nafarroako Gobernuak antolatzen dituen programetarik finkatuenetako bat den honetan, urtero Europako antzinako musika hoberenaren eskaintza egiten zaigu (Erdi Arokoa, Errenazimentukoa eta barrokoa). Lizarrako hirian izaten da. Asteak berrogeita hamargarren urteurrena ospatuko du 2019. urtean.

Proposamenaren barrenean, kontzertu akademikoak izaten dira San Migel elizan, entzute handiko jotzaile talde nazional eta nazioartekoek emanak. Ekitaldi guztietan ahalegina egiten da Jaialdiaren helburuekin bat datozen nafar talde eta artistek parte har dezaten.

Azken ekitaldietan, entzule berriengana iristeko asmoz, programazio lerro berriak ireki dira; horretarako, beste genero batzuk hartzen dituzten proposamen musikalen kontzertuak sartu dira (herri musika, besteak beste) edo konbentzionalak ez diren egitarauak San Migel elizatik kanpoko bestelako guneeetan aurkeztu dira.

Beste jarduera batzuk ere proposatzen dira, egitaraua osatzeko, kontzertuak entzuteko testuinguru egokia sortzen laguntzen dutenak; esate baterako, zinema zikloak, dantza tailerrak, master class-ak zuzendariekin edo egitarauan parte hartzen duten bakarlariekin eta hitzaldiak.

Lizarrako Antzinako Musikaren Astea (LAMA) Antzinako Musikako Jaialdien Europar Sarearen barrenean sartua dago (REMA); erakunde hori da Antzinako Musikaren Europako Egunaren sustatzailea (www.rema-eemn.net).

LAMA irailaren lehenbiziko hamabostaldian izaten da, Kultura Zuzendaritza Nagusiak Baluarte Fundazioarekin lankidetzan antolatuturik.

2. DEIALDIA

Abian jartzen da Lizarrako Antzinako Musikaren Astearen 2017ko ekitaldiko zuzendaritza artistikorako proiektuak aurkezteko deialdi irekia.

2.1. HELBURUAK

Egitarauaren helburua da Nafarroan, estatuan edo nazioartean sortutako antzinako musikaren erakusleihoa izatea.

Asteak, bestela, nafar artistei plaza bat emateko eta hedapen kulturala egiteko helburua ere badu.

2.2. KOORDINAZIOA, EKOIZPENA ETA KUDEAKETA

Kultura Zuzendaritza Nagusiak (KZN) eta Baluarte Fundazioak (BF) jaialdia koordinatu, ekoitzi eta kudeatuko dute eta jaialdiaren zuzendaritza orokorraz arduratuko dira. Entitate horien eginkizunen artean dago jaialdiaren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak zuzentzea. Bi entitate horiek izendatutako koordinatzaileak izanen dira hautatuko den zuzendaritza artistikoaren solaskideak eta horretan Jarraipen Batzordearen laguntza izanen dute (Jarraipen Batzorde hori musikaren sektoreko profesionalek eta KZNko eta BFko kideek osatuko dute; haren eginkizunak 2.4 puntuan zehaztuko dira).

2.3. ZUZENDARITZA ARTISTIKOAREN EGINKIZUNAK

Astearen zuzendaritza artistikoaz arduratuko denak elkarlanean aritu beharko du Nafarroako programatzaile, erakunde eta artistekin eta Asteko egitaraua sortu, planifikatu eta gauzatu beharko du.

Lizarrako Antzinako Musikaren Astearen zuzendaritza artistikoak honakoez arduratu beharko du:

- Astearen programazioa, Nafarroako, estatuko eta nazioarteko artistak bertan sartuz.
- Entzule berriak etor daitezen sustatzea, inklusio, parte-hartze eta kogestioko politiken bidez.
- Astearen programazioa, ezarritako egutegi-ordutegien barnean eta jasangarritasun irizpideetan oinarrituta esleitzen zaion aurrekontuarekin. Proiektuak, artistak eta konpainiak proposatzea. Haiekin harremanetan jartzea. Konpainia, artista eta gonbidatutako beste profesional batzuen lana koordinatzea.
- Harremanak izan eta mantentzea Nafarroako, estatuko eta nazioarteko beste jaialdi, sustatzaile eta erakunde batzuekin.
- Komunikazio plana diseinatzen laguntzea, Kultura Zuzendaritza Nagusiarekin eta Baluarte Fundazioarekin elkarlanean.
- Ekoizpenaren koordinazioan laguntzea, aldez aurreko bere osotasunean eta Asteak iraun bitartean, Kultura Zuzendaritza Nagusiak eta Baluarte Fundazioak jarritako giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoetara egokituz.
- Komunikazioan eta prentsan ezartzeko berriazko testuak sortzea. Komunikaziorako testuei jarraipena egitea.
- Programatutako artista eta taldeekin harremana ezartzea, eta eskatzea beharrezkoa den materiala, gunearen publizitatea eta weba egiteko, bai eta kontratuak egiteko datuak ere.
- Alderdi teknikoren bati konponbidea eman behar zaionean (soinua, argiteria eta ikus-entzunezkoak), elkarlanean jartzea Astea, taldeak eta artistak.
- Astea ongi burutzeko egin beharreko lan guztiak, ezarritako helburu eta jarduketa-ildoei jarraikiz.
- Jarduera ebaluatu, eta hari buruzko txostena egitea eta memoria entregatzea.
- Nafarroako musika ondarea bilatu eta biziberritzea, unibertsitateekin, ikerketa zentroekin, dokumentazio zentroekin eta interpreteekin batera, dagokeena berreskuratuz eta Astearen barrenean interpretatzeko.

2.4. JARRAIPEN BATZORDEA

Batzordea eratu da kide hauekin: Nafarroako Gobernuko Kulturako zuzendari nagusia, Baluarte Fundazioko zuzendari kudeatzailea, Kultura Ekintzako Zerbitzuko zuzendaria, Nafarroako Kulturaren Kontseiluko bi kide, eta musikaren sektoreko entzute handiko bi pertsona.

Batzordearen eginkizunak honako hauek izanen dira:

- Zuzendaritza artistikoa aukeratzea
- Programazioa behin betikoz onestea
- Zuzendaritza artistikoak berarekin dakartzan lanetan laguntzea eta haien jarraipena egitea
- Memoriaren urteko ebaluazioa egitea

2.5. HAUTAGAIK

Pertsona fisikoak izan daitezke hautagai.

Hautagaiek beharkizun hauek bete beharko dituzte:

- Unibertsitateko goi mailako titulazioa izatea eta Astearen helburuak beteko direla bermatuko duten ibilbidea eta esperientzia egiaztatzea.
- Espainiako nazionalitatea izatea, edo Europar Batasuneko beste estaturen batekoa.
- Hautatutako pertsona autonomoen erregistroan alta emanda egonen da jarduera hasten den egunean eta, gainera, beharrezko dokumentazioa ekarri beharko du.
- Hautagaiak balizko interes-gatazkaren gaineko aitorpena aurkeztu beharko du eta esparru berean beste jarduera batzuk egiteko baimena eskatu duela adierazi beharko dio batzordeari.
- Hiru urteko gutxieneko esperientzia antolakunde kultural publiko edo pribatuetan, bereziki musikaren esparrukoetan.

Proiektuak gaztelaniaz zein euskaraz idatzita aurkez daitezke.

Ingelesa, euskara eta Europar Batasuneko beste hizkuntza batzuk ezagutzea baloratuko da.

2.6. HAUTAKETA

Proiektuak Jarraipen Batzordeak baloratuko ditu.

Proiektuak ebaluatzeko kontuan izanen dira: programazio artistikoaren planteamendua, bitartekaritza programak, ikusleak sortzeari arreta egitea, jardunbide egokiekin eta kudeaketako gardentasunarekin bat datozen kudeaketa proposamenak, eta aurrekontu aldetiko bideragarritasuna.

2.7. ESKABIDEAK

Eskabideak aurkezteko epea 30 egun naturalekoa izanen da, oinarri hauek Baluarte Fundazioaren eta Kultura Zuzendaritza Nagusiaren webguneetan jendaurrean jartzen direnetik hasita; eta amaituko da 2017ko martxoaren 1ean.

Interesdunek dokumentazioa posta ziurtatu bidez igorri beharko dute Baluarte Fundaziora (Baluarte plaza, z.g. - 31002 Iruña). Dokumentazioa gutun-azal baten barnean sartuko da eta haren gainean "Lizarrako Antzinako Musikaren Astearen zuzendaritza artistikorako deialdia" idatziko da. Dokumentazioa bi gutun-azaletan banatuko da. 1. gutun-azalean parte-hartzailearen datu hauek bilduko dituen dossier bat sartuko da:

1. Motibazio gutuna
2. Izen-deiturak
3. NANA
4. Jaioteguna
5. Helbidea
6. Telefonoa
7. Helbide elektronikoa
8. Curriculum laburra, iruzkindua
9. Unibertsitateko titulua

2. gutun-azalean:

1. Proposamenaren marko kontzeptualaren azalpen trinkoa.

2. Proiektuaren aurkezpena. Programazio ildoen proposamena.
3. Egokitzat jotzen den gainerako dokumentazioa.

Batzordeak hautagaiei dei egin diezaieke beren proiektuak aurkez ditzaten. Hautapen prozesuari buruzko kontsultak posta elektronikoz igor daitezke helbide honetara:

smade-selec@baluarte.com

2.8. LAGUNTZA KONTRATUA

Baluarte Fundazioak hautatutako pertsonarekin 8.000 euroko laguntza kontratua izenpetuko du. Kontzeptua, hauxe: Lizarrako Antzinako Musikaren Astearen 2017ko ekitaldiko zuzendaritza artistikorako ordainsaria.

Baluarte Fundazioak gehienez ere 2.000 euroko berariazko diru-kopuru bat gaituko du, lana egiteko behar-beharrezkoak diren bidaia-gastuetarako.

Kontratua betetzeko epea sinatzen den egunean hasiko da eta 2017ko urriaren 30ean amaituko.

Kontratuaren ordainketa honela egingen da: zenbateko bereko hiru ordainketa: lehena, kontratua sinatzen denean; bigarrena, Astea hasten denean; eta hirugarrena, urteko memoria aurkeztu ondoren, eta alde zuzenetik behar den faktura aurkeztuta.

2.9. JARDUNBIDE EGOKIAK ETA KODE ETIKOA

Erakunde kultural publikoen demokratizazioan eta kudeaketako konpromiso etikoan sakontzeko helburuari begira, LAMAREN zuzendaritza artistikoa arduratuko da dokumentu honen eranskinean berariaz adierazten diren gomendioak eta konpromisoak benetan bete daitezzen.

Halaber, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Legearen arabera, deialdi honetan parte hartzen duten pertsonak eskubidea dute beren datu

pertsonaletara sartzeko, eta haiek zuzentzeko nahiz ezerezteko; horretarako, idazki bat bidali beharko dute Baluarte Fundaziora, Baluarteko plaza z.g., 31002 Iruña, edo posta elektronikoa erabiliz: smade-selec@baluarte.com

I. ERANSKINA

Konpromisoak jardunbide egokiei dagokienez:

1. Astea nafar gizartean garatu eta errotu dadin bultzatzea.
2. Asteko jarduerak balio publikoa izan dezaten edo gizartera itzul daitezten ahalbideratzea, lurraldearekin ongi uztartutako ekintza kulturala errazteko.
3. Zuzendaritzaren autonomia defendatzea esparru artistikotik kanpoko injerentzien aurrean.
4. Esparru guztietan parekotasuna ezartzeko konpromisoa hartzea.
5. Lan arloko oinarrizko eskubide eta betebeharrak aplikatzea, kontratazio jasangarriko eredu bati jarraikiz.

Astearen zuzendaritza artistikoak proiektua garatuko du honako gomendio eta printzipio hauen arabera:

1. Astearen zuzendaritzaren lerro estrategikoak jendaurrean jartzea.
2. Kudeaketa administratiboa koherentea izan dadin laguntzea.
3. Funts publikoetan beharrezkoak ez diren gastuak ez egiteko konpromisoa aplikatzea.
4. Inplikaturako eragileekin eta lanbide sektorekoekin elkarlanean aritzea.

Astearen aurrekontua: 115.000 euro

II. ERANSKINA

2016KO AURREKONTUAK

2016an, Astearen aurrekontua **106.200** eurokoa izan zen.

Kultura Zuzendaritza Nagusiak ekarritako aurrekontua xehakatuta:

-Konpainien kontratazioa: **65.000 €**

* Konpainien kaxeta: 61.000 €

* Beste proposamen artistiko batzuk: 1.500 €

* Prestakuntza: 1.000 €

- Hotelak, bidaiak, dietak: 1.500 €

EKOIZPENA: 16.000 €

- Ekoizpena, giza baliabideak eta exekuzioa: 12.000 €

- Ekoizpena, baliabide teknikoak: 4.000 €

- Komunikazioa (material inprimatuak, webgunea, diseinua, publizitatea, eta abar): **15.000 €**

- Prentsako eta irratiko iragarkiak (Komunikazioko Zuzendaritza Nagusiaren bitartez): **10.200 €**